

Elkarretaratze bat. *Iñigo Foronda*

# Martxoaren 3ko justiziaren aldeko urratsa

Bertan behera utzi dute krimen frankisten oztopoak jartzen zizkion Madrigalen agindua

**GASTEIZ** – Dolores Delgado Estatuko fiskal nagusiak indarrik gabe utzi du Consuelo Madrigal karguaren aurrekoak 2016ko irailean sinatutako agindu bat, 1976 eta 1978 bitartean krimen frankistengatik Argentinan irekitako auziarekin lotutako erreguzko komisioen tramitazioaren aurka egiteko eskatu baitzion Madrilgo fiskalburuari, Europa Press albiste agentziari baieztatu diotenez.

Egin daitezkeen eginbideen aurka ez egiteko Fiskaltzak hartutako erabakiak garrantzia izan dezake Maria Servini Argentinako Errepublikako 1. Epaitegi Kriminal eta Korrekzional Federaleko titularrak auzi honetan egindako azken zitazioari begira; irailaren 3rako ezarri du Rodolfo Martin Villa ministro ohiaren galdeketa, bide telematikoz, prozesu honetan inputatuta baitago.

Izan ere, erregimen frankistaren ustezko krimenetan Martin Villak izan zitzakeen erantzukizunak zehaztu nahi ditu Servinik; besteak beste, 1976ko martxoaren 3ko sarraskian bost pertsona hil ziren eta ehundik gora zauritu, Polizia Armatuak Gasteizen egiten ari ziren langile-protestan parte hartu zutenen aurka egindako tiroen ondorioz. – E. F. D.




## Atxilotua udaltzainei eraso egiteagatik

**ALKOHOLEMIA PROBA** – Gasteizko Udaltzaingoak 32 urteko gizonezko bat atxilotu zuen astearteak, Udaltzaingo bati eraso egitea egotzita. 19.30 inguruan, patruila batek Extremadura kalean ibilgailu bat ikusi zuen zirkulazioan, atzeko kolpe-leungailua askatuta eta galtzadan herrestan zaramala, Udalaren arabera. Agenteek gidaria Done Jakue Hiribidean geldiarazi zuten, eta alkoholdun edarien eraginpean egotearen ageriko zantzuak ikusi zizkioten. Antza denez, alkoholemia probak egiten ari zitzaizkiola, gidariak ez zuen amaitu nahi izan eta udaltzainekin "liskarrean eta irainka hasi zen". – *DNA*

## Tratamiento gratuito con ozono para los vehículos

**OION** – Como una contribución privada a la labor que desarrollan las instituciones para la desinfección de espacios públicos y privados, la empresa Glassdrive, en colaboración con el Ayuntamiento de Oion, ofrece un tratamiento gratuito con ozono a los vehículos que acudan al taller de la Avenida Navarra el jueves 27 de 10.00 a 14.00 y de 16.00 a 18.00 horas. La generación de ozono tiene un alto poder desinfectante y es eficaz contra ácaros, hongos, microorganismos y olores. – P.J.P.

## Ayudas al empleo para pequeñas empresas

**VITORIA** – El Ayuntamiento de Vitoria mantiene abierto hasta el 11 de septiembre el plazo de solicitud de las ayudas dirigidas al mantenimiento del empleo para empresas de menos de 10 trabajadores de la capital alavesa, afectadas por la crisis de covid-19. – *DNA*